

Euskararen aurkako eraso berria Hezkuntza Departamentuan

Nafar jendartearen hizkuntza eskubideen urraketa berria izatekotan gaude Nafarroan. Hezkuntza Departamentuak gaizki hasitako prozesuari, kudeaketa okerragoa gehituko dio oraingo honetan.

Oposizioen deialdiak garbi jasotzen du euskaraz aritzeko lanpostuetarako azterketan, izangaiek aukera dutela gaztelaniaz zein euskaraz egiteko aukera. Aitzitik, aukera bikoitz hau ez zaie aitortzen klaseak gaztelaniaz emateko diren lanpostuetan. **Steilasek** honen gaineko azalpena eskatu zuen Departamentuan, eta haren erantzuna "ohiko galderak" atalean etorri zen: "gaztelaniaz aritzeko lanpostuetarako probetan, izangaiek gaztelaniaz egin behar dute azterketa". Azpimarratu behar da web orrian jarritako informazioak ez duela balio juridikorik, are gehiago deialdian ez bada zehaztu.

Steilasek Arartekori kexa azaldu zion martxoaren 23an, eta erantzuna eman zigun Hezkuntza Departamentuko zuzendari Orokorrak hari emaniko azalpenetan oinarriturik: "gaztelaniaz aritzeko lanpostuetan, inolako hizkuntza-titulurik eskatzerik ez dagoenez, izangaiek hizkuntza horretan gaitasuna erakutsi behar dute azterketan"

Steilasek nafar guztiok Administrazioan dokumentazioa aurkeztu edota Administrazioari euskaraz zuzentzeko dugun eskubidearen urraketa salatu nahi du. Ezin isilik egon irakurketa murriztate honen aurrean; beste behin ere agerian geratu da erdaldunen eskubideak defendatzen direla, eta euskaldunona, berriz, zokoratu.

Euren programazioak euskaraz aurkeztu eta defendatzea erabakitzen duten izangaiei, edota azterketak euskaraz egitea erabakitzen duten izangaiei administrazioak ematen dien erantzunaren jarraipen juridikoa eginen dugu.

Datorren ekainaren 4an kalera aterako gara gure hizkuntza eskubideen defentsan. Euskaldunak ez gara bigarren mailako hiritarrak. Euskara bizi eta lan egin nahi duten pertsonen eskubideak bermatutik izan daitezten izanen gara Iruñeko karrketan.